

TRAPUJALE

LEZOKO IHATERIA

SUSPERREGI — ZURUTUZA 1990





Antolatzailea: LEZOKO KULTUR BATZORDEA

Laguntzaileak: LEZOKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA


LEZOKO «IMAZ Y GALLARDO» MARMOLARIAK

TRAPUJALE

GIDOIA: SUSPERREGI
MARRAZKIAK: ZURUTUZA

1990





EHUN URTE IRAUTEN DUEN GAITZIK EZ OMEN DELA ETA, LEZOK EZAGUTU ZITUEN, ONDOREN, DENBORA HOBEAGOAK. GOSE GARAIAK, NOLABAIT, ATZEAN GERATU ZIREN.

BAINA TRAPUJALE EZIZENA LEZOREKIN ZERIKUSIA ZUEN EDOZERRI LOTUA EGON ZEN BETI. LEZOTARRAK AITZINEKO OHITURA ETA GERTAERAK BETI GOGOAN EDUKI IZAN DITUZTE. HISTORIAK ASMATZEKO ORDUAN ERE EZ DIRA INOIZ MAKALAK IZAN. TRAPUJALE GOITIZENA GOXOKI ETA UMORE ONEZ HARTZEAZ GAIN, BERE INGURUAN KONDAIRA ZAHAR BAT SORTU ZUTEN. GURE EGUNETARAINO, PERTSONAIA ETA GUZI, IRITSI ZAIGUN IHAUTERIKO KONDAIRA...

TRAPUJALE, GUZTIOK EZAGUTZEN DUGUN TRAPUZ ESTALITAKO ERDI GIZON, ERDI ZALDI ETA ERDI BETIZU DEN IZAKI HORRETAZ HAINBESTE HITZEGIN ZEN, BADI RUDI BIZIA ETA GUZTI HARTU ZUELA. ETA EGIA IZAN BEHAR ZUEN... GOSE GARAITAN MAMITU-TAKO PERTSONAIA JAIZKIBEL MENDIAN TARTEKA IKUSIA IZAN ZELAKO. BAINA HORI ZIURTA-TZERA EZZEN INOR AVSARTZEN. HORI BAI, LEZOTAR GUZTIOK SINESTEN ZUTEN BEREN ISPIRITUA ERREPRESENTATZEN ZUEN TRAPUJALENGAN



GAUR EGUN EZ DAGO DUDARIK, TRAPUJALEOK, HOTS, LEZOTARROK, BADA KIGU TRAPUJALE BADA GOLA. GU GUZTIOK BAI GARA TRAPUJALE, ETA DEXENTE URTETIK HONA LEZOKO IHAUTERIAN AZALTZEN ZAIGULAKO, BERTAKO ARDATZA IZANIK... BERA... TRAPUJALE!

HONELA, OSTEGUNZURIN, LEZOKO IHAUTERIKO LEHEN EGUNEAN LEZOTARROK GORPUTZA TRAPUZ ESTALIRIK, LEPOAN ZAPI ZURIA UDALETXEKO BALKOIKO TRAPUAK EGUN HONETAN AGINTZEN DUEN BEZALA, GAU ALDEAN, MARTIZKONE BASERRI INGURURA ABIATZEN GARA... TRAPUJALE NOIZ AZALDUKO...




ETA HARA NON AZALTZEN DEN TRAPUJALE, ILUNTASUN BELTZETIK, MALDAN BEHERA. TRAPUJALEON POZA SEGITUAN NABARITZEN DA. JENDEAREN BUILA ETA ALGARAK HERRI ALDETIK BOTATZEN DEN LEHENGO SUZIRI BATEN EZTANDAREKIN NAHASTEN DIRA.



ZUZIEN BIDEZ HERRI ALDERAKO BIDEA ARGITUZ, HOR GOAZ GURE TRAPUJALEKIN LEZOKO PLAZARA. SUZIRI GEHIAGO JAVURTITZEN DIRA, TXISTULARIEK TRAPUJALEN JEITSIERA ALAITZEN DUTE BEREIN DOINJAZ. HERRIAN TXALAPARTA HOTSATZUTEN DA, KANPAIAK TILIN-TALAN...



PLAZAN TRAPUZ JANTZITAKO IZUGARRI JENDE PILOA BULAKA... TRAPUJALE, TRAPU-
JALE, TRAPUJALE ETORRI DA!
PLAZA OSOAK PILPILEAN DAGOEN SALTSAREN KAZUELA DIRUDI.



TRAPUJALE UDALETXEO BALKOIRA
IGOTZEN DA. BERTATIK URRAK ETA
INTXAURRAK BOTA ETA AURTENGO
IHAUTERIKO PREGOIA IRAKURTZEN
DIGU.

KAIKO TRAPUJALEOK,
AURTEN ERE BERRIRO LEZORA
ETORRI NATZAIZUE HERRI-
KO IHAUTERIA ALAITASUN,
UMORE ON ETA
ZORION OSOZ
IGAROTZEKO
ASMOAREKIN.
EGUN HAUTAKO POZA
ETA JUERGA ETA BLA, BLA,
BLA, BLA...
GORA TRAPUJALE!

GORA!

GORA!

PREGOIA BUKATU ONDOREN JENDEA
BADDA. TRAPUJALE UDALEKO BAL-
KOIAN GERATZEN DA, ZUTIK. BER-
TAN PASAKO DITU OSTEGUNZURI
ETA OSTIRALORIA, GAINONTZEKO GUZ-
TIEN IHAUTERIKO FESTAKO EROMENA
OSPATZEN.




OSTIRALORIN TRAPUJALEOK LEPOKO ZAPIA ALDATUAZ BAGOAZ KALERA IHAUTERIA OSPATZERA. FESTA HAUTAN ASPERTZEKO DENBORIK EZ DAGO. LEZOTARROK HAMAIKA EKINTZA ETA JOLASEKIN OSPATZEN DITUGU EGUN HAUEK:



BARRIKOTEA
TRAPUJALEEN

TRAPU
TIRA




TRAPU
DANTZA

TRAPUJALEZ GAIN BADIRA LEZOKO IHAUTERIAN BESTE PERTSONAI BATZUK, BAINA HAUEK AURKEZTEKO BESTE ISTORIOTXO BAT AZALDU BEHARREAN GAUDE...

ASPALDI BATEAN BA OMEN ZEN JAIZKIBEL MENDIAN MARINAZKANE
DEITURIKO SORGIA BAT. MARINAZKANEK BAZITUEN ZERBITZUAN BERE
AGINDUAK AGUDO ETA PREST BETETZEN ZITUZTEN ZAZPI ZIRIKU: BATA
MUNTAR, ZIRIKU NAGUSIA, BESTE SEIEN NAGUSI: IXKU, ALLER, SUMI,
TIÑEL, SATS ETA LET, HAIN ZUZEN.





MARINAZKANE BOTERE MAJIKO HAUNDI ETA ASKORREN JABE ZEN. ITSASALDETIK EKAITZA NOIZ ZETORREN AXERTATZEA HORIETAKO BAT IZANIK, URRUNEAN ITXURA TXARREKO HODEI ILUNAK SOMATZEN ZITUENEAN, ZIRIKU NAGUSIARI DEITU ETA HITZEGITEN ZION...

MUNTARR, EKAITZA DATOR. AGINDU IEZAI EZU ZIRIKUEI JAIZKIBEL MENDITIK SAKABANATZEKO ARTZAI EI EKAITZA DATORRELA ESANAZ HAU EK BEREN ARTALDEAK GORDE DITZATEN. AZKAR MUNTARR!

BAI, MARINAZKANE!



ETA ZIRIKUAK HOR JOATEN ZIREN KORRIKA JAIZKIBELGO ZABALDI, BIDE ETA TXOKO ETATIK BARNA ARTZAI GUZTIAK EKAITZAREN JAKINAREN GAINEN JARTZEN...

GORDE ZUEN ARTALDEAK, EKAITZA DATOR!

SORGINAREN ZIRIKUAK DIRA, BILDU DITZAGUN BA ABEREAK ETA BABESEAN JARRI.


ARTZAIK BEREN ARTALDEAK LEKU GORDEAN BILTZEN ZITUZTEN EKAITZA BERE TXIMISTA, TRUMOI ETA UR ZAPARRADAREKIN ALDENTZEN ZEN ARTE.



PASA DA EKAITZA,
EZ DA EZER GERTATU.

SORGINARI
ESKER...

ESKER ONEAN, ARTZAIK, URTEA BUKATZEN ZENEAN MARINAZKANER
NERI ZAZPI ARDI ESKEINTZEN ZIZKIOTEN ORDAIN BEZALA.
HONELA JAIZKIBELGO SORGINAK BERE ZIRIKUEN BITARTEZ
URTEAN ZEHAR ARTZAI EI EMANDAKO ABIXU MESEDEGARRI
GUZIEK SARIA JASOTZEN ZUEN.



MARINAZKANER ETA ARTZAIEN ARTEKO HARTUEMAN HONEK
URTE ASKO IRAUN ZITUEN. HARREMAN INTERESATU BAT
ZELAKO ETA GUZTIEI KOMENI ZITZAIELAKO...


BAINA SUERTATU ZEN, ORDEA, JAIZKIBEL MENDIAK
EKAITZIK JASANGO EZ ZUEN URTEA. ARTZAIK EZ ZU-
TEN IKUSI ORDUAN JAIZKIBELGO SORGINARI URTEROKO
ZAZPI ARDIAK ESKEINTZEKO ARRAZOIRIK. BERAIEN US-
TEZ MARINAZKANERK EZ ZIEN MESEDERIK EGIN, EZ
BAI ZEN EKAITZIK IZAN...



IHAUTERIKO SEI TRAPUAK




OSTEGUNZURI



OSTIRALORI



LARUNBATGORRI




IGANDEUBEL



ASTELEHENARRE



ASTEARTEBELTZ



ZIRIKU
NAGUSIA




TRAPUJALE



ZIRIKUAK

LEZOKO
IHAUTERIKO
PERTSONAIA
NAGUSIAK



"AGUAZILLA"



EPAILEA



JAIZKIBELGO SORGINA

MARINAZKANEK, SAIZKIBELGO SORGINAK, EZ ZUEN
BERDINA SENTITZEN. ARTZAIK BERAREKIN ZU-
TEN TRATUA PUSKATU ZUTELA PENTSATUAZ HA-
SERRE BIZIAN ERABAKI LATZA HARTU ZUEN...

LEZOKO ARTZAI LELO HORIEK
NI ERE HALA NAIZELA USTE DUTE.
URTEETAKO TRATUA, HONELA, EZER
ESAN GABE BERAIEK MOZTU DUTE, BA
EZ DEZATELA PENTSA HAU HORRELA
GERATUKO DENIK. ZAZPI ARDIAK
NERDNEK KOBRATUKO DITUT!

NOLA?

OSO ERRAZ,
BEGIRA...



MARINAZKANEK BERE IAITZIZ AR-
TZAIEK ZOR ZIZKIOTEN ZAZPI AR-
DIAK ESKURATZEKO PLANA AURKEZ-
TU ZIEN ZIRIKOEI :

HEMENDIK EGUN GUTXI BAR-
RRU, LEZOTARREK TRAPUJA-
LEN IHAUTERIA OSPATZEN
DUTE. OSTEGUNZURIN TRA-
PUJALE BERA JAIZKIBEL-
DIK HERRIRA, FESTARA, JEI-
TSIKO DA. ARTZAI GEHIENAK
ERE MENDITIK JEITSIKO DI-
RA. HORI IZANGO DA GURE
AUKERA...



... ORDUAN ZUEK, NIRE ZERBI-
TZARI LEIALOK, ZAZPI ARDI LAPUR-
TUKO DITUZUE; HONA EKARRI,
BERTAN HIL ETA BEREN HARA-
GIA SUTAN ERRETA JANAZ, AR-
DI LARRUEKIN ZUENTZAT JAN-
TZIAK EGINGO DITUGU. ZIRIKU
BAKOITZAK ARDILARRU BAT...




... GERO, LARUNBATGORRIN,
TRAPUJALE BERE LAGUNEKIN
HERRITIK ZEHAR DESFILE FESTAN
IRTETZEN DENEAN, GU DENOK
HERRIRA JEITSIKO GARA.
GU IKUSTEAN, JENDEAK, ORAIN-
DIK FREXKOAK DAUDEN ARDILARRUAK
NONDIK ATERA DITUGUN GALDETU-
KO DIGU...



...ZUEK MENDIAN AURKITU DITUZUELA
ESAN, HARAGIRIK GABE ZEUDELA, ZUEK
LARRUAK JASO BESTERIK EZ ZENUTELA
EGIN ESAN. ERRUA TRAPUJALERI BO-
TAKO DIOGU. JENDEARI HORI ESAN, AR-
DIAK TRAPUJALEK HIL DITU !

MARINAZKANEN ZIRIKUEK, OSTEGUNZURIN, SORGINAK
AGINDUTAKO GUZTIA ZEHATZ MEHATZ BETE ZUTEN.



GAUZAK HONELA, HERRIRA BUELTATZEN GARA BERRIRO,
HASITAKO BIDETIK IPUIA JARRAITZEKO ASMOZ...

LARUNBATGORRIN TRAPUJALE GUZTIAK, ETA TRAPUJALE BERA, KALERA IRTETZEN DIRA IHAUTERIKO EGUNIK EDERREN ETA SUTSUENA OSPATZERA. TRAPU GORRIA LEPOAN, JENDEA HERRITIK ZEHar DABIL, KONPARTSA DESFILEAN, POZIK ETA ALAI TRAPUJALEN INGURUAN.

LEZO OSOA FESTA HAUNDI BAT, IHAUTERIA BERE UNE GORENEAN AURKITZEN DA, BAINA...



... HARA NON AZALTZEN DEN FESTAREN ERDIAN MARINAZKANEN BERE ZAZPI ZIRIKUEKIN DUELA BI EGUN LAPURTU ETA HILDAKO ARDIEN LARRUAK SOINEAN. LEZOKO JENDEA TXUNDITURIK GERATZEN DA...

BEGIRA JAIZKIBELGO SORGINA BERE ZIRIKUEKIN!

IKUSI AL DITUZUE SOINEAN DITUZTEN ARDILARRUAK?

MARINAZKANEN EZ DU ARDIRIK. LAPURTUAK DIRA!



FESTAK BERE BIDETIK JARRAITZEN DU, BAINA JENDEA OSO HASERRE DAGO. LEZOTARREK, BESTERIK EZ ZUTELAKO, BETI TRAPUZ JANTZIRIK, GOSEA ZUTENEAN TRAPUAK JATEN... ETA HOR AZALTZEN ZAIZKIGU MARINAZKANEN ZAZPI ZIRIKUAK ARTZAI EI LAPURTUTAKO ARDIAK BAPU JANDA, BERAIEN ARDILARRUEKIN JANTZITA...

NAHIZ ETA HERRIKO JENDEA OSO MINDUTA EGON GERTATUTAKOAREKIN, EZ DA INOR SORGINA SALATZERA AUSARTZEN, BELDURRA DIOTE, HAINBESTE DIRA MARINAZKANEN BOTERE MAJIKOAK... HORRETAZ GAIN, LEZOTAR ARTZAI EI SORGINAREKIN DUTEN HARREMANA KOMENI ZAIE. EKAITZA DATORRENEAN ABIXATU EGITEN BAIT DIE...

BESTALDE, ZIRIKUEK, MARINAZKANEN ESAN BEZALA, JENDEA ZIRIKATZEN DUTE ARDIEN HILTZAILEA TRAPUJALE IZAN DELA ESANAZ...

TRAPUJALE DA ERRUDUN!

TRAPUJALEK LAPURTU ZITUEN ARDIAK!

BERAK HIL ZITUEN!




LARUNBATGORRIN, DESFILEA ETA GERO, TRAPUJALE UDALETXKO BALKOIRA IGOTZEN DA BERRIRO. BEHEAN FESTAK JARRAITZEN DU, BAINA TRAPUJALE GOIBEL ETA TRISTE DAGO. MARINAZKANEK ETA BERE ZIRIKVEK TRAPUJALEN AURKA EGINIKO SALAKETAK FRUITUA JASO DUTE.



GAVEAN ARDO, ZARATA ETA MUSIKA ARTEAN JENDEA SALTOKA ETA DANTZAN BIRIBILKA DABIL. MARINAZKANE ETA ZAZPI ZIRIKVAK, BERRIZ, BERAIEK LANA BUKATUTA, IZKUTVAN, INORK IKUSI GABE, JAIZKIBEL MENDIRA BUELTATZEN DIRA...

UTZ DIEZAIEGUN TRAPUJALEEI GAURKO FESTA OSPATZEN. IGANDEUBEL ETA ASTELEHENAREN TRAPUJALE ERRUGABEA DEN ALA EZ PENTSATZEKO DENBORA SOBERAN IZANGO DUTE. GOAZEN GU JAIZKIBELERA, LEZON ZALANTZAREN OIHARTZUNA LAISTER ZABALDUKO DA...



SORGINAK ESAN BEZALA, IGANDEUBEL ETA ASTELEHENAREN, LEZOTARREK BEREN ESPIRITUA GOIBELTZEN DVEN ZALANTZA IKARAGARRIA DUTE. TRAPUJALE ERRUDUN OTE? EGIA IZANGO AL DA ZIRIKVEK ESATEN ZUTENA?

IHAUTERIA EGUN GUTXI BARRU BUKATUKO DA. ASTEARTEBELTZEN EPAIKETA BAT IZANGO DA. TRAPUJALE ZAZPI ARDIEN HILKETAREN ERRUDUN DEN ALA EZ DEN ERABAKIKO DA. LEZOTARREK EZ DUTE AUKERA HAUNDIRIK. GEHIENGOAK TRAPUJALE ERRUGABEA DELA USTE DV. TRAPUJALE ONA DELAKO, ETA LEZOTAR GUZTIAK TRAPUJALE GARELAKO. BAINA SORGINAK ERAGIN HAUNDIA DV HERRITARRENGAN. BELDUR DA JENDEA, MARINAZKANEK NAHI DVENA LORTZEN BAIT DV BETI...



GAUZAK HORRELA, ASTEARTEBELTZ GAUEAN, JAIZKIBELDIK ZAZPI ZIRIKUAK JEISTEN DIRA. MARINAZKANE MENDIAN GERATU DA, BERTATIK DENA IKUSTEN... HERRIKO PLAZAN, TRAPU BELTZA LEPOAN, TRAPUJALE GUZTIAK NEGARREZ EPAIKETA NOIZ HASIKO ZAI DAUDE. EPAILEA, DAGOENEKO, BERE MAHAIAN ESERITA DAGO, ETA AGUAZILLAK TRAPUJALE KATEIATURIK DAKAR BALKOITIK BEHERA. ZIRIKUAK ERE PLAZA INGURURA HURBILTZEN DIRA, EPAIKETA HASTERA DOA...



EPAILEAK DU HITZA...

TRAPUJALE, MARINAZKANEK, JAIZKIBELGO SORGINAK, ZAZPI ARDIREN LAPURKETA ETA HILKETAREN ERRUDUN ZU OMEN ZARELA DIO. EGIA AL DA?



TRAPUJALE GIZASOA IXILIK GERATZEN DA, EZ DU ERANTZUTEKO EZ GOGORIK ETA EZ INDARRIK. BEGIETATIK BI MALKO ERORTZEN ZAIZKIO... MUNTAR, ZIRIKU NAGUSIAK, EZ DU ASTIRIK GALTZEN...

ERRUDUNA DA, EPAILE JAUNA. GUK IKUSI GENUEN TRAPUJALE ARDIAK HILTZEN!



EPAICEAK ERABAKIA HARTZEN DU...

TRAPUJALEN DEFENTSARAKO FROGARIK EZ DAGOENEZ ETA ZIRIKUAK ARDIEN HILKETAREN LEKUKO IZAN DIRENEZ, BESTE AUKERARIK GABE, TRAPUJALE ERRUDUN BEZALA IKUSTEN DUT...



ERABAKI HONEN AURKAKO JENDEAREN ERREAKZIOA IZUGARRIA DA...

TRAPUJALE, ... AGUAZILLAREN ESKUTIK, KATEJATURIK, HERRITIK ZEHAR HERIO BIDAIA EMANGO ZAIZU PLAZARA BERRIRO IRITSI ARTE. ORDUAN, IGI-TAI AZ, BURUA MOZTUKO ZAIZU ETA SUBANBADARA BOTAKO. HALA BEDI!

EZ! EZ!
TRAPUJALE
ERRUGABEA
DA!



EPAILEA UDALETXEAN SARTZEN DENEAN, JENDEAREN NEGAR ETA GARRASIEN ARTEAN TRAPUJALEN HERIO BIDAIA HASTEN DA. AGUAZILLAK TRAPUJALE KATEKIN LOTUTA DARAMA; MUNTAR, ZIRIKU NAGUSIA, AURRETIK DOA IGI-TAIAREKIN; ZIRIKUAK ONDOAN TRAPUJALE ZIRIKATZEN; TRAPUJALEN LAGUNEK ZUZI ETA KANDELEKIN BIDEA ARGITZEN DIOTE. ATZETIK, MUSIKA DOINU TRIKTE ETA ILUNAREKIN, GAINONTZEKO TRAPUJALE GUZTIAK DOAZ, BURUMAKUR, GURE IHAUTERIKO PERTSONAI NAGUSIARI AZKEN BIDAIA LAGUNTZEN... HERRIAK, MARINAZKANEN ERAGINEZ, TRAPUJALE ZINTZOARI BIZITZA KENTZEA ERABAKI DU...



HERIO BIDAIA HERRIKO PLAZAN BUKATZEN DA. HERRITARREK TRAPUJALE AURREAN MA-KURTU ETA ERREBERENTZI GISA AZKEN KANTA ESKEINTZEN DIOTE...


TRAPUJALE, TRAPUJALE, TRAPU, TRAPU, TRAPU, TRAPU, TRAPUJALE
MAINDIRE, MAINDIRE, TRAPU, JAU, TRAPU, JAU, TRAPU, JAU, JAU, JAU.



ORDUAN MUNTARREK KOLPE BATEZ TRAPUJALE-
LERI BURVA MOZTEN DIO IGITAIAREKIN.
JENDEAREN GARRASI ARTEAN BURVA ZAKU
BATETAN SARTU ETA UDALETXEKO BAL-
KOIRA IGOAZ JENDEARI ERAKUSTEN DIO.



MUNTAR JEISTERAKO BESTE ZIRIKUEK SU-
BANBADA PIZTU DUTE, TRAPUJALEN BURVA
GORDETZEN DUEN ZAKUA BERTARA BOTAT-
TZEN DA, ETA ZIRIKUAK BERE INGURUAN
DANTZAN HASTEN DIRA...



BAINA HALAKO BATETAN, LEZOTARREN PENEA ETA NEGAR ZOTINAREN GAINETIK, NONBALTETIK, TRAPUJALEN AHOTS MISTERIOTSUA ENTZUTEN DA...

TRAPUJALE MAITEOK, EZ GEHIAGO NEGARRIK EGIN. BURUA MOZTU DIDATE BAINA NI ORAINDIK BIZI NAIZ. EZ AHAZTU TRAPUJALEEN ISPIRITUA NAIZELA, INORK INDIZ AKABATUKO EZ DUEN ISPIRITUA. ALAITU BERAZ ZUEN AURPEGIAK, ABESTU ETA DANTZATU IHAUTERIAREN AZKENEKO EGUN HONETAN, NI DATORREN URTEAN BERRIRO ITZULIKO BAIT NAIZ. HOR PLAZAN DUZUEN TRAPUJALE GORPUTZETIK TXORIZOA ETA ARDOA ATERAKO DIRA. JAN ETA EDAN EZAZUE NAHI HAINA, BADAGO ETA!
AGUR TRAPUJALEOK, DATORREN URTERARTE!
ONDO IZAN LAGUNAK!

TRAPUJALEN HITZ HAUekin IHAUTERIKO AZKENEKO EGUNA BAPATEAN ALAITU EGITEN DA. TRAPUJALEK ESAN BEZALA, BERE GORPUTZETIK TRAPUJALE GUZTIEI BANATZEN ZAIEN TXORIZO ETA ARDOA ATERATZEN DA. TRAPUJALEOK HOR GABILTZA BERRIZ ZORIONEKO FESTA GIRO ZORAGARRIAN SALTOKA. MARINAZKANE... MUNTAR ETA KONPAINIA... BESTE BATETAN IZANGO DA... DATORREN URTERARTE, LAGUNAK...
AUPA TRAPUJALE!

AUPA TRAPUJALE!

GORA TRAPUJALEAK ETA GORA LEZO!

AUPA!


GORA!

20.

... ETA GEZURRA BAZAN, SARTU ZAN...

—AKABO—

TRAPUJALE JANTZIRAKO IDEIAK ...



DISEINA ETA MARGOTU
ZURE TRAPUJALE JANTZI
PROPIA ...

LASTOZKO
TXAPELA

①

TXAPELA
NORMALA

②

TXAPELA
ARRAROA

③

BETIKO
TXAPELA

④

AMONAREN
KAMISOLA

ZAKU TELAZKO
BLUSA ETA
CALZAK

ETXEKO PASILOKO
KORTINA ZAHARRA

ARTILEZKO
KALZETINAK

LARRUZKO EDO GOMAZKO
ABARKAK

* TXAPELA, JERTSE, GALTZA ETA ERABILIZEN
DUZUEN BUZTIAK TRAPUAK ZINTZILIK BEHAR
DITV GAINETIK.

12 AHATZV, KOLORE DESBERDINETAKO EGONETAN, TRAPU DESBERDINA ...



ZIRIKU
NAGUSIA



TRAPUJALE



ZIRIKUAK

LEZOKO
IHATERIKO
PERTSONAIA
NAGUSIAK



"AGUAZILLA"



EPAILEA



JAIZKIBELGO SORGINA



ATZEKOATE